



TOPATU

“Asko gara eszenatokira igo nahi dugun neskak”

Xalba Ramirez / Topatu / Klitto!

@xalbaram / @topatu_eus / @KlittoDigitala

Euskal musika eszenaz eta genero harremanekin duen loturaz aritu dira Topatu eta Klitto atariak hainbat musikarirekin: Izaro Andres Zelaieta (Izaro), Ane Bastida Saiz (Hesian, Lauroba...) Onintza Rojas Olazabal (Koban), eta Olatz Salvador Zaldua (Skakeitan, Olatz Salvador).

“Zergatik ez gara emakumeak oholtza zapaltzera ausartzen? Askotan gertatu zait jendeak pentsatzea taldeko baten bikotekidea naizela, adibidez. Zergatik? Eszenatoki bueltan denak mutilak direlako, eta inertziak nahigabe denak mutilak direla pentsatzen dugulako” (Olatz Salvador). “Mutil talde asko daude, ondo jo gabe animatzen direnak. Zenbat mutil ikusi dituzu gaizki abesten?” galdetu zidaten, eta asko izan dira. Baina neska bat gaizki abesten? Sekula ez. Izan ere, mutilak baimentzen zaie akatsak egitea, baina neskoi ez. Eta ikuspegi hori aldatzean aterako da neska talde mordoak. Asko garela eszenatokira igo nahi dugun neskak, ateratzeko zain gaudenak” (Izaro Andres).

Emakume izateagatik, kritikak

“Publikoak gure musikaz gain gu ere baloratzen gaitu, eta gure inseguridadeak handitzen dira. Ahalduntzea egin behar izan dugu horrenbeste jendek gutaz esango

duenaz ez hainbeste pentsatzeko. Baina errealitatea da ez dela kontzertu bakarria egon, taldean neska gehiago garela gogorarazi ez digutena. Musikaria zara, baina lehenago emakumea, eta uneoro gogorazten dizute” (Onintza Rojas, goiko argazkian). “Nire taldeko mutilek jasotzen ez dituzten kritikak jasotzen ditut nik, ez soilik musika ikuspegitik: ze ile kolore, nola noan jantzita... Bestelako kritika ugari entzun behar izan ditugu” (Ane Bastida). “Eskubidea dugu eszenatokian nahi dugun bezala egoteko: polita, itsusi, ondo edo gaizki jotzen” (Izaro Andres).

Jarrera maskulinoez

“Estilo asko oraindik ez ditugu jorratu eta talde punkyen eredu jarraitzen dugu, beraien patroiak. Maskulinizatu behar izan dugu askotan eszenan sartzeko. Musika egiteko era femeninoagoa behar dugu” (Olatz Salvador). “Jarrera maskulinoagoak hartzera behartuta sentitu naiz. Normala da, batzuetan 16 laguneko lantaldean neska bakarria ni izan naiz-eta. Une oso deserosoak bizi izan ditugu” (Izaro Andres). “Arazoa hala ere ez da emakume edo gizon izatea bakarrik, gune askeak beharrezkoak dira norman sartzen ez diren gorputz horientzat guztientzat. Eta espazio guztiak askatu behar ditugu, bai, baina bitartean beharrezkoa da gune aske batzuk bada ere sortzea” (Onintza Rojas).

EKONOMIAREN TALAIAN

Jaurlaritzak bere buruari ezartzeko moduko DSBE bat



Juan Mari Arregi

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DSBE) jasotzen duten EAeko 62.924 pertsonak laster ikus dezakete euren prestazioa murriztuta -634 euro inguru pertsonako- EAJ-PSE-ren gobernuak PPre babesarekin sustaturiko erreforma dela-eta. Horixe salatu du berriki Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak, Lanbidearen Bilboko egoitza aurrean; babes sozialeko sistema publiko bat ere eskatu du mugimenduak.

Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak esan zuen pertsona bat duin bizi daitekeela hilean 600 euroekin. Eredu izan beharko luke eta bere soldata publikoari uko egin DSBEekin bizitzeko! Ez dute lotsarik gobernuan duten kargutik publikoki halako gezurrak esateko: jende guztiak daki pertsona batek -are gutxiago familia batek- ezin duela egungo DSBEekin duin bizi. Funtsean, Eusko Jaurlaritzak DSBERen erreformarekin nahi duena da kostuak murriztu, bere lehentasunak beste batzuk direlako, tartean dirua erruz bideratzen duen AHT.

Murrizketa politikak justifikatzeko, Eskubide Sozialen Kartak garbi du zertan ari den administrazioa: “Kriminalizatu eta estigmatizatu nahi ditu kolektibo eta sektore sozial prekarioak, baita sozializatzeko moduak ere, pobrezia aurre egin eta etxebizitza konpartitu beharra daukaten horiena, adibidez”. Beharrezkoa da prestazio sozialen kontrol egokia iruzurra saihesteko, baina ezin da onartu obra faraonikoentzako dirua dagoen bitartean -ekonomikoki, ingurumenari dagokionez eta sozialki justifikaezinak-, gehien behar dutenentzako laguntza publikoari guraizeak sartzeko. Euren buruari ezarri beharko liekete DSBE berri hau lehendakariak, sailburuek eta haien aliatuek.